

Kontxako Ikurrina

Kortaren agurra?

Arraun mundua utzi nahi duela adierazi zuen atzo Jose Luis Korta oriotarrak

Azken urteetan gaizki pasatu duelako eta aurrera jarraitzeko motibazioarik ez daukalako arraunketa utzi nahi duela adierazi zuen atzo Jose Luis Korta Orioko entrenatzaileak. Erabakia ondo pentsatu beharra daukala adierazi zuen. Bitartean, Orioko arraunlariak atzo itzuli ziren entrenamenduetara.

Aitor Ugalde / Donostia

JOSE LUIS KORTAK arraunketa utzi egingo du beharbada denboraldi honen amaieran. Arraun mundutik urrundu egin nahi duela adierazi zuen atzo eguerdian Euskadi Irratian. Kortak esan zuenez, ez dauka motibazioziko arraunlariak jarraitzeko. «Azkeneko urteetan ikaragarri sofritzen ari naiz adierazi zuen entrenatzaile oriotarrak. Erabakia ondo pentsatu beharra daukala gaineratu zuen.

Bere kontzientzia lasaiatzeko balio izan dio Kontxan lortutako garaipenak. «Beharrezkoa nuen garaipen hau. Aspaldiko urte hauetan gogor ari gara entrenatzen. Herrian handia ez den sektore batek paretaren kontra jarri nau eta batez ere nire familiak asko sofritu du», esan zuen atzo. Kortak behin eta berriz adierazi du Kontxan irabazi dituen 10 Ikurrinetatik (zortzi arraunlari zela eta bi entrenatzaile zela) aurtengoa izan dela pozgarriena eta hunkigarriena.

Orioko entrenatzailearen ustez, aurtun asmatu egin dute denboraldian egindako lanarekin. Laz, denboraldian zehar talde onena izan arren, Kontxan huts egin zuten. «Aurtun San Pedro




Orioko arraunlariak Donostiako kaian lurreratzen.

ANDER GILLENIA

izan da estropada gehien irabazi dituen, baina azkeneko euren parean jarri gara eta Kontxan gauzak hobeto egin ditugulako guk eraman dugu garaipena», adierazi zuen. Kortak onartu zuen bandera galtzeko arriskua ikusi zuela zozketan lehen kaletik aritzea egokitu zitzaizkion.

Orion ospakizun handia egin zen igandean. Kontxako Ikurrina prestatzen Orion egon diren Tirango arraunlariak ere bertan izan ziren. Festak goizaldera arte iraun bazuen ere, atzo entrenamenduetara itzuli ziren Orioko arraunlariak. Kortak atzo jai emateko asmoa zeukan hasiera batean, baina igandekoa ikusita atzo ere lanean jartzea erabaki zuen. «Atzo (igandekogatik) denok, neroni hasita, pasatu egin gara, eta horregatik gaur entrenamendua egin beharra dauka, zeren eta oraindik estropada garrantzitsuak dauzkagu eta horietan profesionalak garela erakutsi beharra dauka», zioen atzo eguerdian. Bere ustez, igandeko gehiegikeriak gainditzeko erarik onena entrenamendua, ohikoa baino arinagoa, egitea da.



Tirango arraunlariak pozik ohorezko txanda irabazi ondoren.

ANDER GILLENIA

Hemendik aurrera estropada garrantzitsuak geratzen dira: BBK Ikurrina datorren asteburuan, Ligako azken jardunaldia astelehenean eta El Corte Ingles Ikurrina hurrengo asteburuan. Kortak esan duenez azkeneko estropadaraino saiatu behar dute. Liga irabaztea taldearentzat garrantzitsua izango litzatekeela dio, baina beldur die ondorengo egunetan izango dituzten estropada ugariak.

Sailkapena

Kontxako Ikurrina:

1. Orio	39.29.20
2. Tiran	39.35.77
3. San Pedro	39.40.72
4. Hondarribia	40.15.21
5. Koxtape	40.24.30
6. Ondarroa	40.28.66
7. Donibaneko	41.04.44
8. Ur Kirolak	42.00.33

Aurkari galiziarrak

ORIOREKIN batera Tiran izan da Kontxatik ondoen atera den traine-rua. Galziarrek igandeko ohorezko txanda irabazi zuten eta garaipen hori Ikurrina irabazi balute bezala ospatu zuten.

Tiranek erakutsi du Euskal Herriko talde onenen parean dagoela. Datorren urtean talde bitan banatu eta unti

bat Euskal Herriko denboraldian aritzeko asmoa agertu dute. Kontxan erakutsi duten maila azaltzen badute, traineru bat gehiago sartuko da proba garrantzitsuenetako lehen. Hori bai, ikusteko dago itxaso txarra dagoenean nola moldatzen diren.

Euskal Herrian ez da asko ezagutzen Galizia-

ko arraunketa. Kortak esan zuenean Tiran Kontxako ohorezko mailan sartuko zela, gutxi sinetsi zioten. Baina Tiran Galiziako arraunketaren erakusle garbiena da, ez bakarria, Perillo edo Meira ere hor baitaude.

Gainerantzean, San Pedro bere maila erakutsi zuen Kontxako bigarren jardunaldian.

Hondarribiak bere maila onari eusten dio baina onenen mailarainoko urratsa ez du oraindik eman. Ondarroak ere antzera. Donibanekok aurtun ez duela bere urtea erakutsi du Kontxan eta Koxtapek goraka doala, donibandarren arteko lehia irabaziz. Ur Kirolakek ahal zuena egin zuten onenen artean. X

1 Formula

Eta Schumacherrek urteko hirugarrena lortu zuen

Williamseko gidariak ez zuten punturik eskuratu

Laurentzi Garmendia / Donostia

EROMENA izan zen Italian laz bezala, karrera oso arraroa suertatu zen, eta gidari garrantzitsu asko oso azkar erretiratu ziren. Baina aurtuneko urtearekin alderatuz, aurtun erretiratze gehienak gertaketa akatsen ondorioz iritsi ziren, motoreek nahiko ongaitasun jasan baitzuten karrera gogorra Monzako zirkuituan. Orain arte nahiko ahula zen Ferrari autoak ere amaitu zuten karrera: hirugarren aldiz lehen postuan pasatu zuten helmuga marra.

Gidari gehienak pista batera ziren, eta ondorioz askok ezin izan zuten lasterketa amaitu; Hill, Coulthard, Irvine eta Frentzen, adibidez. Hauek karreratik kanpo geratzearen arrazoia Monzako arduradun italiarrek txikarrietan ezarri zituzten pneumatikoak dira. Pneumatiko hauek gidarien ibilbidea zuzentzeko jarri ziren, baina gogor zigortzen zituen bihurtu guneak motzago eman nahi zituzten gidariak.

Mika Hakkinenek berebiziko karrera burutu zuen, lehen itzulietan aurreko hegala aipatu gurpil horiek jotzean hautsi baitzuen, eta ondorioz postu asko galdu. Poliki-poliki postuak irabazi zituen, eta merezitako hirugarrena lortu. Damon Hill aurtengo txapeladuna izan daiteke, baina McLaren taldean Hakkinenen postua lortu nahi badu gogor egin beharko du lan. Alain Prostek gidari finlandiarra oso gogoko baitu.

Txapelketa erabakitzeak
Damon Hillen erretiratzeak eta Jacques Villeneuve-ren postu txarrak (ez zuen punturik lortu) lehen bezala utzi dute txapelketarako borroka. Bi karrera falta dira, hau da, 20 puntu gehieneko jokoan, eta Hillek 13 ateratzen dizkio bere taldekideari.

Azkeneko lasterketetan Hill ingelesa sendotasun gutxi erakusten ari da, baina hala ere aurtengoa txapelketa irabazteko bera da faborito nagusia. Nahikoa luke Portugalgo Sari Nagusia irabaztea horretarako, Villeneuvek edozein postutan amaituta ere.

Bukatzeak, Hillen datorren urteko talde posibleen artean Benetton ere sar daiteke. Alesi ez omen dago oso gustura jasotzen duen tratua erekin, eta Jordanera joan daiteke Ralf Schumacherren ondoren galdutako. Egia esan, gero eta gauza arraroagoak entzuten dira.

Hurrengo proba: Portugalgo Sari Nagusia izango da, irailaren 22an korrituko da Estorilgo zirkuituan. X

Zumarragako Udala

EDIKTUA

Zumarragako Udalak 1996ko uztailaren 15ean egin zuen bileran "Zumarragako hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-4 Arearen (Sekundino Esnaolako txaletak) barne aldaketa" izeneko espedienteari hasierako onespina eman zionez, Lurzoruaren legeko 128. artikulua agintzen duena betetze aldera, herritarrok aztergai izango duzue esandako espediente hori, Udaletxeko Bulego Teknikoan, Ediktu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta bihamunetik aurrera HILABETEKO epean, hartara, nahi duen guztiak aztertu, eta egoki iritziz gero, bidezko diren ohar nahiz erreklamazioak egin ditzan.

Zumarraga, 1996ko irailak 3.
ALKATEA